



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 68. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Ekaina



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Europar Batasunaren hazkunderako eta enplegurako hitzarmena

Europako Kontseiluko presidentetzaren ekainaren 28 eta 29ko bileran, Batasuneko estatuburuak Hazkunderari eta Enpleguari buruzko hitzarmenaren inguruko erabakia hartu zuten. Bertan, kide diren estatuek eta Europar Batasunak hazkunderari, inbertsioari eta enpleguari bultzada berria emateko eta Europa lehiakorragoa egiteko ekin beharreko jarduera biltzen da.

Erabaki horrekin ekintzarako testuinguru koherentea finkatu da maila nazionalan, Batasunaren mailan eta eurogunearen mailan; izan ere, kide diren estatu guztiek erabateko konpromisoa izaten jarraitzen dute Europa 2020ko Estrategiaren helburuak lortzeko nazio mailan beharrezkoak diren berehalako jarduera guztiei ekiteko.

Kide diren estatuek honako alderdi hauek nabarmenduko dituzte bereziki:

- Hazkundera bultzatzen duen bereizitako aurrekontua onbideratzea lortzea: zuzenean hazkunde ekonomikoarekin lotutako etorkizunera bideratutako alorretan inbertsioari arreta berezia eskaintzea eta pentsio-erregimenen iraunkortasuna bermatzea beharrezkoa da.
- Ekonomiari mailegatzeko jarduera normala berrezartzea eta banku-sektorearen berregituraketari larritasunez akabera ematea.
- Hazkundera eta lehiakortasuna sustatzea, bereziki, sakonki sustraitutako desorekei aurre eginda eta hazkunderaren barne-potentziala desblokeatzeko egiturazko erreformekin jarraituta.
- Langabeziari eta krisiaren ondorio sozialei modu eraginkorren aurre egitea; erreformekin jarraitzea, enplegu mailak hobetzeko; gazteentzako enplegua areagotzeko ahaleginak handitzea, bereziki, gazteentzako laneko lehen esperientziara heltzeko aukerak eta lan-merkatuko partaidetza hobetzeko.
- Administrazio publikoa modernizatzea, bereziki, sistema judizialeko atzerapenei aurre eginda, karga administratiboak murriztuta eta administrazio elektronikoko zerbitzuak garatuta.

Horretarako, funtsezkotzat jotzen da ekonomiaren finantziazioa bultzatzea. Horri dagokionez, 120.000 milioi euro mobilizatuko dira (EBko RNBaren (Errenta Nazional Gordinaren) % 1arekiko baliokidea), efektu bizkorreko hazkunde-neurriak bultzatzeko.

*Informazio gehiago:*

*Presidentetzaren ondorioak*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/es/ec/131399.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/131399.pdf)

*Benetako ekonomia- eta moneta-batasunerantz*

[http://consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/es/ec/131290.pdf](http://consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/131290.pdf)



### > Iruzur fiskalaren eta ihes fiskalaren kontrako borroka indartzea

Batzordearen “iruzur fiskalaren eta ihes fiskalaren kontrako borroka indartzeko modu zehatzei buruzko” jakinarazpenak, “hirugarren herrialdeekin ere lotuta”, ekainaren 27koak, European iruzur eta ihes fiskalaren aurka borrokatzeko hainbat proposamen egiten ditu.

Jakinazpenak dioenez, iruzur eta ihes fiskala kide diren estatuek diru-sarrerak biltzeko eta politika ekonomikoa aurrera eramateko duten gaitasuna mugatzen ari dira. Aurrekontuak onbideratzeko garaian, kide diren estatu askok gastuak murrizteko eta diru-sarrerak areagotzeko beharra dutenean, iruzur eta ihes fiskala aurrekontu-politika are gehiago zailtzen ari dira. EBko ezkutuko ekonomiaren tamainari buruzko kalkuluek –BPGd-aren ia bosten bat– arazoaren tamainaren lehen zantzia eskaintzen dute. Era berean, lurraldez kanpoko jurisdikzioetan milaka milioi eurok jarraitzen dute eta horiengatik askotan ez da konturik ematen, ezta zergarik ordaintzen ere, eta ondorioz, diru-sarrera fiskal nazionalak murriztu egiten dira.

Iruzur eta ihes fiskalaren arazoa nabarmen areagotu da azken urteetan. Ekonomia mundu mailako bihurtzea, aurrerapen teknologikoak, iruzurra nazioartekotzea eta horren guztiaren ondoriozko kide diren estatuetako zerga-administrazioen elkarrekiko mendekotasunak aditzera ematen ditu zorrozki nazionalak diren planteamenduen mugak eta baterako jardueraren beharra indartzen du.

Jakinazpenak betebeharrak fiskalak betetzea hobetzeko eta iruzur eta ihes fiskala murrizteko moduei buruzko ideia orokorra azaltzen du, lehendik dauden tresnak hobeto erabilia eta Batzordearen bete gabeko proposamenak bere gain hartuta. Hori horrela, legegintzako ekintza edo koordinazio handiagoak EBri eta kide diren estatuei onura zein alorretan ekarriko liekeen adierazten du.

Ekintza hori ez litzateke iruzurrezko jardueran eta ihes fiskalean soilik oinarritu behar, eragiketa edo egitura artifizialen erabilera eta zerga-sistemen arteko bat ez etortzeen esplotazioa ere biltzen dituen planifikazio fiskal agresiboan ere oinarritu behar litzateke, kide diren estatuetako arau fiskalak ahuldu eta diru-sarrera fiskalen galera okertzen baitu.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2012:0351:FIN:ES:PDF>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Ibai-eremuetan ingurumen-baliabideen kudeaketa hobetzeko mugaz haraindiko lankidetzako *Guratrans* proiektua abian jartzea

Pirinioen mendebaldeko mugaz haraindiko ibaietan ingurumen-baliabideak hobetzeko Guratrans proiektua abian jartzeko bilera egin zen ekainaren 25ean. Programa hori Europako funtsekin batera finantzatu da, mugaz haraindiko Poctefa lankidetzeta-programaren bidez.

Proiektuaren helburua ibaietako uraren kantitateari eta kalitateari buruzko ezagutza eta egoera hobetzea da, horretarako, koordinazio hobe eta ur-baliabideen kontrol handiagoa ahalbidetuko duten mugaz haraindiko eta eskualdez haraindiko egiturak txertatuta.

Ekintzak bost ibaitan garatuko dira: Bidasoa; Urdazuri, Nafarroa eta Communauté de Communes Sud Pays Basque lurraldearen artean; Urumea eta Oriaren ibaiadarrak: Araxes eta Leitzaran, Nafarroatik eta Gipuzkoatik iragaiten direnak.

Proiektuaren aurrekontua 1,07 milioi eurokoa da, EGEFen % 65eko baterako finantzaketarekin.

Proiektua 2 urtez garatuko da eta bertan parte hartuko dute erakunde hauek: Ura-Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernuaren Ur Zerbitzua eta Adour Garonne Uraren Agentzia.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/descarga.do?121110117116066083043104116115121106115110105116066070043104116105110108116066054058053043116119105106115066055>



### > Kide diren estatuetakoko biztanleen kontsumo eraginkorraren indizea Europar Batasuneko batez bestekoaren % 44 eta % 150 artean dago


Batasuneko kide diren estatuetakoko biztanleko kontsumo eraginkorra erosteko ahalmen-berdintasunean Europar Batasuneko batez bestekoaren % 44 eta % 150 artean egongo da 2011n, Eurostateko kalkuluen arabera.

Indizerik altuenak Luxenburgoko (% 150), Austriako (% 117) eta Holandako (% 113) dagozkienak izango dira. Kopuru txikiak Bulgariako (% 44) eta Errumaniako (% 47) bilduko dira.

Banakoaren kontsumo eraginkorraren indizeak pertsonen kontsumitutako ondasunak eta zerbitzuak biltzen ditu, horien ordainketa egiten duen sektorea edozein dela ere.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/2-20062012-AP/EN/2-20062012-AP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-20062012-AP/EN/2-20062012-AP-EN.PDF)



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Benetako ekonomia- eta moneta-batasunerantz

Herman Van Rompuy Europako Kontseiluko presidentearen txostenak ekonomia- eta moneta-batasunaren etorkizuneko ikuspegia azaltzen du eta hazkunderari, enpleguari eta egonkortasunari laguntzeko modurik onena azaltzen du. Txostenak datorren hamarkadan Ekonomia eta Diru Batasun (EDB) sendoagoaren arkitekturarantz aurrera egitea proposatzen du, finantza-sektorerako, aurrekontu-gaietarako eta ekonomia-politkarako testuinguru integratuetan oinarrituta.

Txostenak funtsezko lau zutabetan oinarritutako EDB oparo eta egonkorraren ikuspegia proposatzen du:

- Finantza-egonkortasuna bermatuko duen testuinguru finantzario integratua, eurogunean, batez ere, eta Europako herritarrentzat bankuen porrotaren kostua gutxienera murriztuko duena.
- Aurrekontu-politika eskalan –nazionala nahiz europarra– bermatuko duen aurrekontu-testuinguru integratua eta koordinazioa, erabakiak batera hartzea, exekuzio handiagoa eta zor komunaren igorpenerako bat datozen neurriak batuko dituena.
- Hazkundera, enplegua eta lehiakortasun iraunkorra sustatuko dituzten eta EDBren funtzionamendu egokiarekin bateragarriak izango diren nazio eta Europa mailako politikak egotea bermatzeko behar adinako mekanismoak izango dituen ekonomia-politikako testuinguru integratua.
- Beharrezko legitimitate demokratikoa eta EDBn erabakiak hartzearen erantzukizuna bermatzea, politika komunitarako eta elkartasunerako subiranotasunaren baterako ekitaldian oinarrituta.

*Informazio gehiago:*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_data/docs/pressdata/es/ec/131290.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/131290.pdf)



### > Funtsezko teknologia bideragarrietarako Europako estrategia: hazkunderako eta enplegurako zubia

Funtsezko Teknologia Bideragarrietarako Europako strategiari buruzko jakinarazpenean, Europar Batasunak funtsezko teknologia bideragarriak industrialki garatzeko eta zabaltzeko duen gaitasunak etorkizunean, hein handian, Batasunaren bilakaera ona zehaztuko duela dio Batzordeak. Europar Batasunak hiru erronka nagusi gainditu behar ditu: mundu mailako lidergo teknologikoa mantentzea, funtsezko teknologia bideragarrien aplikazioetan oinarritutako erronka sozialak menderatzea eta oinarri industrialia modernizatzea eta indartzea.

I+G intentsitate altuarekin, berrikuntza-ziklo azkarrekin, kapital-gastu handiarekin eta prestakuntza handiko eskulanarekin lotutako ezagutzaren erabilera intentsiboa duten teknologia gisa definitzen ditu Batzordeak funtsezko teknologia bideragarriak. Teknologia horiei esker, ekonomia osoko prozesuen, ondasunen eta zerbitzuen berrikuntza gertatzen da eta garrantzi sistemikoa dute. Diziplina anitzekoak dira, alor teknologiko ugari inplikatzeko dituzte eta bateratasunerako eta integrazioarako joera dute.

EBn funtsezko teknologia bideragarri gisa identifikatutako teknologiak dira: mikroelektronika eta nanoelektronika, nanoteknologia, fotonika, material aurreratuak, bioteknologia industrialia eta fabrikazio aurreratuak.

Funtsezko teknologia bideragarriak berrikuntza-iturri garrantzitsuak dira. Produktuaren aplikazio sorta zabala ahalbidetzen duten ezinbesteko osagai teknologikoak eskaintzen dituzte, horien artean, karbono gutxiko teknologia energetikoen garapenerako, energiaren eta baliabideen erabilerako eraginkortasunaren hobekuntzarako, klima-aldaketaren aurkako borrokaren sustapenerako eta zahartze osasungarria ahalbidetzeko beharrezkoak direnak.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2012:0341:FIN:ES:PDF>



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Etorkizunerako zifrak: garapen iraunkorreko 20 urte Europan?

“Etorkizunerako zifrak” dokumentuak Europar Batasuneko garapen iraunkorraren adierazle esanguratsuak eta horiek erakusten dituzten joerak aurkezten ditu.

Estatistikak Anne izeneko 17 urteko fikziozko ikaslearen begietatik aurkezten ditu. Annek eguneroko bizitzarekin eta etorkizunarekin zerikusia duten galdera askori erantzuna bilatu nahi die. Anneren egitekoa galdera honi buruz informatzea da: Europak azken 20 urteetan aurrera egin al du garapen iraunkorragorantz? Eurostatek egindako gida Rio de Janeiron izandako Goi Bileraren 20. urteurrena dela eta argitaratu da.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product\\_details/publication?p\\_product\\_code=KS-32-12-152](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-32-12-152)

### > Enplegu-tasa, Europa 2020 Estrategiaren xedea: metodologiak eta analisia

Europa 2020 Estrategiako zati gisa, 2020ko enplegu-tasaren mundu mailako helburuaren finkapenerako analisiaren eta analisi-metodologiaren ikuspegi orokorra ematen du dokumentuak, jaso beharko duen erreferentziazko biztanleria eta helbururako balio egokia jasota.

Helburu komuna kide diren estatuertarako helburu espezifiko bilakatzeko ikuspegiak ikertzeko egindako ondorengo analisia ere laburbiltzen du.

Dokumentuak hasiera ematen die komunitatearen politikako lehentasunezko beharrak bultzatzeko, batez ere, Europa 2020 prozesua bultzatzeko, enplegu- eta gizarte-politikaren alorrean hainbat gai aztertuko dituzten Batzordearen lanerako dokumentu berriei.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=1352&furtherNews=yes>